



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2002-KO URTEALDIA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren 2002ko urtealdiko kontuen fiskalizazio lana mamitu du. Txostena HKEEren Osoko kideek aho batez oniritzi dute.

Osakidetza 8/97 Legeak sortu zuen, Antolamendu Sanitarioari buruzkoak, osasun alorrean eskumena duen Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde modura, nortasun juridiko propio eta xede duen helburua betetzeko jarduteko gaitasun betea duela: bere baitako diren zerbitzu antolamenduen bitartez zerbitzu sanitarioak ematea.

Osakidetza zerbitzu antolamenduetan banatua dago (ospitaleak, osasun mentaleko zentroak, eskualde sanitarioak, etab.) eta euren jarduera finantza eta kudeaketa autonomiaren printzipioari jarraiki gauzatzen dute; finantziarioa Osasun sailarekin izenpetutako kontratu-programetan jasoak dauden kontraprestazioen bitartez egiten da. 2002ko abenduaren 31n Osakidetzak 30 zerbitzu antolamendu ditu eta horietatik 14 ospitaleak dira eta 6, osasun mentaleko zentroak.

Guztizko ustiaketa sarrerak 1.324 milioi eurokoak izan dira eta gastuak, berriz, 1.364 milioi eurokoak. Gastu partida larriena langileen gastuek osatzen dute: 968 milioi euro; honek aurreko urtekoekiko, %5eko igoaldia erakusten du.

HKEEk uste du Osakidetzak hobetu egin dituela bertako kontrol sistemak, besteak beste, kudeaketa integratuko informatika sistema ezarri izanagatik eta 1999/2003 Kalitate Planaren baitan egindako ekintzen ondorioz.

Fiskalizazio txostenaren arabera, Erakunde Publikoak zuzentasunez bete du bertako ekonomia-finantza jarduera arautzen duen arautegia, ondotik adierazitako ataletan salbu:

- Lanpostuen sailkapen funtzional eza, zuzkidura erregimena, dedikazioa, hizkuntza eskakizuna edo lanpostuen ezaugarri funtzionalak barne hartuko



dituena; honek zalantza sortzen du langileen kudeaketako hainbat ekintzen legezketasunari dagokionez.

- Botika eta bestelako gaiak erostea, 46,9 milioi euroko zenbatekoarekin, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeak agindutako prozedurak gorde gabe.
- 9 milioi pezeta egin dituzten 83 kontratutan, ia gehienak aurreko urtealdietatik luzatutakoak, ez da egiaztatu onuradunek zerga edo Gizarte Segurantzarekiko obligazioak bete izana.
- 2,1 milioi eurotan esleitutako 23 kontratutan, erabilitako esleipen irizpideen balio-neurketa, ez dator bat argitara eman ziren pleguetan ageri zenarekin.
- 7,7 milioi euro egin dituzten 26 kontratutan, gehienak aurreko urtealdietako esleipenen luzapen direnak, ez da justifikatzen lehiaketaren ordeztadura negoziatua erabili izana.

Erakundearen kontuetan jasotako informazioari eta horiek ekonomia-finantza eta ondare egoera azaltzeari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du, hainbat idazpurutan salbuespen batzuk egin dituela, emandako informazioan eragin handirik izan gabe.